



2015eko

Txostena

ANUNVISIA



Lehendakaritzaren gutuna	3
Gure enpresa	5
Zer da AMVISA	7
Bere interes taldeei zuzendua	8
Azpiegituraz eta beharrezkoak diren baliabideez hornitua	9
Giza talde konprometitua	10
Uraren kalitatea bermatzen duena	11
Gizarte eta ingurumen erantzukizuna duena	12
2015ean nabarmendutakoak	13
2015eko jardueraren datuak	15
Zerbitzua hartzen duen biztanleria	17
Langileak eta lan jarduerak	18
Giza taldearen prestakuntza eta kudeaketa	19
Jasotako eta banatutako bolumenak (m ³)	20
Arakako EUA	22
Edateko uraren kalitatearen kontrola	23
Edateko uraren banaketa	28
Tratatutako ur zikinaren bolumenak (m ³)	30
Saneamendu sistema	31
Krispiñako UZA	32
Tratatutako ur zikinaren kalitate kontrola	33
Fakturazioko datu nagusiak	35
Kudeaketa komertzialerako eta abonatuaren kudeaketarako beste datu batzuk	36
Erabileren arabera fakturatutako bolumen eta zenbatekoen zehaztapenak	37
Etxeko kontsumoaren karakterizazio datuak	38
Bezeroentzako arreta	39
Zerbitzuaren administrazioaren beste alderdi batzuk	40
Ingurumen kudeaketa	41
Gizarte erantzukizuna: jarduera nabarmenak	42
2015eko ekitaldia: informazio ekonomikoa	45
Magnitude ekonomiko nagusiak	47
2015eko inbertsioen taula	48
Aurreikusitako inbertsioen taula	50
Kontratazio espedienteak	51
Diru laguntzen eta hitzarmenen egoera (€)	52
Aurrekontuaren exekuzioa (€)	54
Balantzea abenduaren 31n (€)	56
Galdu-irabazien kontua abenduaren 31n (€)	58
Hitzen eta adierazleen glosategia	59

2015_{eko}

Txostena

AMVISA

Lehendakaritzaren gutuna

Nahiz eta egoera ekonomikoak zailtasunak ekarri, AMVISaren lanaren ezaugarri nagusienetako bat proiektu eta inbertsioei eustea izan da, azken urteetan eskaintako zerbitzuaren kalitate maila handia edukitzeko eta bezeroak horrekin pozik egoteko. Esate baterako: SAP Kudeaketa Sistemaren ezarpena, banaketaren bermea handitzeko eta saneamendu sistema hobetzeko egindako inbertsio ugariak, eskaria kudeatzeko programa garatzea edo Garapenerako Lankidetzara bideratutako diru funtsei eustea.

Duela gutxi hasitako bide honetan, 2015. urtea ez da salbuespena izan. Ahalik eta zerbitzurik onena eskaintzeko helburu nagusiarri eusteaz gain, AMVISak gaur egun enpresa modernoa izateko asmoa berretsi nahi du. Ildo horretan, sektoreko azkenaldiko aurrerapen teknologikoak sartzen ahalegintzen da eta gizartearekin nahiz ingurunearekin duen konpromisoari eusten dio. Horretarako, oinarritzkoak dira langileen inplikazioa, Zerbitzuaren beharizanei aurrea hartzen dieten inbertsio berriak egitea eta beste administrazio nahiz erakunde batzuekin koordinatzea, beti emaitza positiboak dakartzalako. Administrazio Batzarretan Lan eta Zerbitzuen Foru Planari esker egindako inbertsioen bolumena lankidetzara horren isla da. Horri esker, hainbat herritan banaketa eta saneamendu sareetako zati luzeak berritzen ari gara.


Baina horrek guztiak ez gintuzke guztiak pozik utziko gure lanaren helburua diren herritarrek egindakoa aitortu eta onetsiko ez balute. Hori dela eta, 2015eko amaieran, Vitoria-Gasteizen uraren kudeaketari buruz herritarrek duten iritzia jasotzeko egindako azken ikerketaren arabera, AMVISaren oso balorazio ona egin dute erabiltzaileek. Emaitza horrek hobetzen jarraitzeko adorea ematen digu. Azkenik, ikerketa horretan, herritarrei zuzendutako zerbitzua eskaintzen jarraitzeko enpresaren arreta berezia eskatzen duten alderdiak azaldu dira: kudeaketaren eraginkortasuna, kontsumoaren eraginkortasuna, ingurumen iraunkortasuna eta, jakina, uraren kalitatea.

Jaione Aguirre López de Araya

AMVISako lehendakaria







AMVISA

Gure enpresa

Gure enpresa



Zer da AMVISA

AMVISA udal enpresa pribatua da. Bere xedea da Vitoria-Gasteizen, bere jurisdikziopeko herrietan eta hainbat udalerri mugakidetan (Arratzua-Ubarrundia, Legutio eta Zigoitia) Uren Ziklo Osoaren Zerbitzu Publikoa eskaintzea. Hau da:

- Edateko urez **hornitzea** (jasotzea, biltegiatzea, edangarri bihurtzea eta banatzea).
- Ur zikinak **saneatzea** (estolderia bidez jasotzea eta garraiatzea, araztea eta berrerabiltzea).
- Jardueraren ondorioz sortutako **lokatzak eta hondakinak** tratatzea.

Enpresa 1970ean sortu zen eta bere kabuz, Udalarekiko independente, 1972ren amaieran hasi zen. Orduz geroztik Udala bera da akziodun bakarra. 2009tik uren hiri zikloaren kudeaketa osoa hartu zuen bere gain, ura jasotzen denetik bere inguru naturalera itzultzen den arte, estolderia sareen kudeaketa bere eskumenen artean txertatu zuen unetik.

Gainerako operadore publiko eta pribatuen kasuan bezala, AMVISAK bi erronka nagusiri egin behar die aurre bere eskumenen eremuan:

- 1 Bere zerbitzua hartzen duen biztanleriari gaur egungo eta etorkizuneko ur hornidura bermatzea eraginkortasun handieneko eta ingurumenaren iraunkortasuneko baldintzetan.
- 2 Gaur egungo eta etorkizuneko bideragarritasuna bermatzea, uraren kudeaketaren kostu guztiak berreskuratuz.

Horretarako, enpresako estrategiaren gako nagusiak honako hauek ditugu: lanaren modernizazioa, sektorean eskumenak dituzten beste enpresa eta erakunde publiko batzuekiko lankidetzak, eta kudeaketa iraunkorreko eredu bat hartzea, gizartearekiko konpromisoa duena.

Zuzendaritza organoak

Batzar Nagusia

AMVISAREN kudeaketa organo nagusia da eta Vitoria-Gasteizko Udalaren osoko bilkurak osatzen du.

Administrazio Kontseilua

Administrazio Kontseilua organo betearazlea da, lau urteko agintaldia duten 9 eta 13 urteko kontseilarik osatutakoa. Kontseiluko kideen erdiak gehi batek Gasteizko Udaleko zinegotzi hautetsiak izan behar dute.

Kontseiluak jarraibideak ezartzen ditu, Batzar Nagusiak azter ditzan aurkeztu behar zaizkion gai guztiak onesten ditu eta haien jarraipena egiten du: Udal Sozietatearen urteko jarduketara programa, jarduera memoria, ekitaldi bakoitzeko aurrekontu proiektua eta txostena, urteko kontuak prestatzea, emaitzak aplikatzeko proposamena eta Estatutuak aldatzeko proposamenak.

2015ean Kontseilua 14 aldiz elkartu zen. Batzar Nagusia hiru aldiz bildu zen.

Gerentzia

Administrazio Kontseiluak izendatzen du, Lehendakariak proposatuta. Kontseilua eta bere Lehendakaria laguntzen ditu, haiek hartutako akordioak, ebazpenak eta esku-ordetutako eginkizunak exekutatzen ditu, eta Sozietatearen jarduera zuzentzen eta gainbegiratzen du.

Kontseiluaren osaera abenduaren 31n

Kontseilariak:

Jaione Aguirre and. (EAJ-PNV*) *Lehendakaria*
 Alfredo Iturriaga jn. (PP*)
 Leticia Comerón and. (PP*)
 Silvia García and. (PP)
 Rafael Laza jn. (PP)
 Miren Larrión and. (BILDU GASTEIZ*)
 Antxon Belakortu jn. (BILDU GASTEIZ*)
 David Pina jn. (BILDU GASTEIZ*)
 Blanca Guinea and. (EAJ-PNV)
 José Manuel Bully jn. (PSE-EE)
 Carlos Zapatero jn. (PSE-EE*)
 Jorge Hinojal jn. (AHAL DUGU VITORIA-GASTEIZ*)

Idazkaria: Cristina Núñez and.

*Zinegotziak



Bere interes taldeei zuzendua

- **Gizartea**, osotasunean hartuta, hiriaren ondarea den eta lehen mailako beharrian bat den zerbitzu publikoaren hartzailea dugu. Zerbitzu hori kalitate, irisgarritasun, iraunkortasun eta eraginkortasun berme handienarekin eskaini behar da.
- Kudeaketaren erdigunean **bezeroak** jartzen ditugu eta ur eskaeraren kudeaketaren bidez bertan integratzen ditugu.
- **Langileak** laguntzen ditugu, enpresako aktibo nagusi gisa.
- **Gure hornitzaile eta kontratistekin** harremanak ezartzen ditugu, uraren ziklo osoa kudeatzeko orduan lehentasunezko eragile gisa aitortuak izan daitezzen, baita hainbat programaren eta lan planen exekuzio zuzenaren erantzuleak direlako.
- **Sektoreko beste entitate batzuekin eta Herri Administrazioarekin** lankidetzan aktiboki dihardugu, Zerbitzuaren prestazioa hobetzeko ezagutza eta esperientziaren trukaketa bilatuz.
- **Lan sare** ezberdinetan parte hartzen dugu, baita identifikatzen gaituzten balioen prestakuntzan eta sustapenean ere.

AMVISAk sinatutako hitzarmenak

Madrilgo Complutense Unibertsitatea: Tratamendu eta Kalitate Sailarekin I+g+b proiektuak egiteko


Euskal Herriko Unibertsitatea: AMVISaren kontagailuen entseguak eta ekipo berrien harreraren kontrola egiteko

Uraren Euskal Agentzia-URA: proiektuak idazteko eta ur hornikuntzari buruzko zenbait lan egiteko

Interesatuta dauden entitateak edo erakundeak: Futura Planaren diagnostikoen programan parte hartzeko

Arabako Foru Aldundia: Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren garapenerako hornidura eta ur zikinen arazketa gaietan Otazu, Uribarri-Arazua, Gometxa, Amarita, Mendoza, Matauko, Aberasturi eta Arkaiako Administrazio Batzarretan

AMVISAk zein saretan parte hartzen duen



Beharrezkoak diren azpiegituraz eta baliabideez hornitua



Lau ur bilketa arrunt

	Zadorra Sistema	Gorbeiaiko urtegiak	Albinako urtegia	Durako ur bilketa
Edukiera	180 Hm ³	0,1 Hm ³	5,3 Hm ³	
Jatorria	Zadorra eta Barrundia ibaietako, eta Alegriaren Kanalaren bidez heltzen den Argazubi, Añua eta Alegria ibaien emariaren zati bateko ura	Inguruko iturburuetako ura	Albina ibaia	Zadorra ibaia
Titulartasuna	Iberdrola	AMVISA	Vitoria-Gasteizko Udala	Vitoria-Gasteizko Udala
Emakida	1.000-1.200 l/s Kanalak egindako karpeneren arabera	50 l/s	200 l/s	50 l/s
Banaketa	Ponpaketaren bidezko bulkada	Grabitatearen bidezko banaketa	Grabitatearen bidezko banaketa	Ponpaketaren bidezko bulkada



Arakako EUA

Ekoizpen nominaleko gaitasuna: 37.843.200 m³/urte
ENACek kreditatutako laborategia
31 urte zerbitzua eskaintzen



732,5 km-ko banaketa sarea

10.153 hartune



124.259 hornidura kontratu



843,0 km-ko saneamendu sarea



Krispiñako UZA

Arazteko gehieneko edukiera: 43.800.200 m³
Tratamenduaren edukiera: 17.500 m³/ordu (Lehen mailakoa); 5.000 m³/ordu (biologikoa)
29 urte zerbitzua eskaintzen

Giza Baliabideak eta Idazkaritza

Giza Baliabideetako prozesuak kudeatzen ditu: langileak, lan harremanak, laneko segurtasuna eta osasuna, prestakuntza; lizitazioak, kontratuak, ondarea eta aseguruak kudeatzen ditu; eta barneko eta kanpoko laguntza juridikoa ematen du

ekoizpena, ustiapena eta mantenua

Edateko uraren ekoizpena eta ur zikinen arazketa bermatzen ditu, eta proiektuak eta lotutako azterlanak idazten ditu; ur bilketetako eta Arakako EUAko proiektuak eta obrak gauzatu, mantendu eta kudeatzen ditu; eta Krispiñako UZAko ustiapena ikuskatzen du

Tratamendua eta kalitatea

Ura arazteko tratamenduak ezartzen ditu, eta uraren kalitatea kontrolatzen du jatorrian, tratamenduan, sarean eta lagin guneetan; ur zikinak arazteko prozesuak eta hodi biltzailetarako isurpenak kontrolatzen ditu; eta arazketari lotutako azterlanak prestatzen ditu

Ustiapena eta banaketa

Proiektuak eta azterlanak prestatu, mantendu eta idazten ditu eta presetako, hornidura sareko eta lehen mailako sareko hodiedetako obrak zuzentzen ditu; barneko horniketa instalazioak ikuskatzen ditu; neurketa ekipoak kudeatzen ditu; eta Futura Plana eta Garapenerako Lankidetzako ekintzak koordinatzen ditu

Saneamendua

Proiektuak eta azterlanak prestatu, mantendu eta idazten ditu, eta estolderia sistemetako obrak eta ikuskapenak zuzentzen ditu; haien funtzionamendua eta arazketan duten eragina aztertu eta kudeatzen ditu; lizentzien izapideak eta heritarrentzako arreta kudeatzen ditu; eta saneamenduaren arloko araudia kontrolatzen du

Administrazioa eta ekonomia

Bezeroak eta merkataritza jarduera (kontsumoen irakurketa, fakturazioa eta kobrantza, berankorren eta iruzurren kontrola, estatistikak prestatzea) kudeatzen ditu; bezeroarentzako arreta eta abonatuakiko komunikazioa kudeatzen ditu; sozietatearen finantza kudeaketa eta barneko kontrol ekonomikoa egiten ditu; eta beste administrazio arloko zereginak (harremanak, erregistroak, artxiboa eta abar) gauzatzen ditu

Giza talde konprometitua

AMVISAK ezinbestekotzat jotzen du langile konprometitua, prestatuak eta motibatuta izatea, herritarrei kalitatezko zerbitzua eskaintzeaz gain, enpresa modernizatzen lagunduko duena. Azken alderdi hori behin baino gehiagotan jaso da azken plan estrategikoetan, hain zuzen ere, eta horregatik Zerbitzua egitura moderno batez hornitzea lehentasunezkoztat jotzen zen. Eginkizun horretan funtsezkoa da lan harremanak egokitzea, antolakuntza malgutzera, giza baliabideak eta eskuragarri dauden materialak berrikustea, eta langileen prestakuntza eta motibazioa indartzea.

Gaur egun AMVISAK **sei jarduera arlo** dauzka Azken urteetan zehar egiturak eskatzen zituen lanpostuak sortu ditu erronka nagusietatik eratorritako beharrei aurre egiteko, besteak beste, estolderia kudeatzea, SAP kudeaketa sistema berri bat txertatzea eta bezeroaren arretako prozesuak hobetzea.

Langileen **prestakuntza** tresna estrategiko eta esperientzien trukaketatzat hartzen da, bai barne mailan, baina kanpora begira. Hori dela-eta AMVISA ordezkaturata dagoen sektoreko foroetan eta koordinazio espazioetan parte hartzea sustatzen da. Prestakuntza ekintzak garatzeko Hobetuzetik eta Tripartitatik datozen diru laguntzak daude, eta proposatutako ekintza guztien artean, nabarmentzekoak dira Euskararen Sustapenerako Planean txertatutakoak. Erakundearen barruko berdintasunaren alde ere lan egiten da, eta unibertsitateetik edo prestakuntza zikloetatik datozen praktiketako ikasleak hartzen dira.

Laneko segurtasun eta osasunari dagokionez, Batzorde bat osatu da enpresa, langile eta Gasteizko Udalaren Prebentziorako Zerbitzu Mankomunatuako ordezkariak osatua, urtero enpresa egiturako maila guztietan hedatuta dagoen segurtasun plan baten jarraipena ere egiten duena. Bertan jasota daude urteko hobekuntza helburuak, segitu beharreko jarraibideak, erabili beharreko giza baliabideak eta teknikoak, eta bere ezarpen eta funtzionamendurako baldintzak eta arauak.

Uraren kalitatea bermatzen duena

- **EUA ezberdinetako tratamenduen berrikuspen eta egokitzapenari esker**, egunero egiten dira sartzen den uraren kontrolak, tratamenduaren urrats ezberdinetan eta tratatutako uretan. Gainera, beste kontrol batzuk ere gehitzen dira, urte sasoiaren arabera tratamendua optimizatzeko xedez: mikroalga, protozoo patogeno, burdin eta manganesoaren kontrol bereziak, eta baita muskuilu zebraren larbak antzemateko laginen azterketak ere Arakako EUAren ur sarreran. Urbarri eta Albinako urtegietan presa mailako profilak ere egiten dira.

Bestalde, Kalitate Arloak EUAetan instalaturiko neurgailuak etengabe berrikusi, kalibratu eta mantentzen ditu teleagintearen bidez, eta Vitoria-Gasteizko sareko birkloratzeetarako instalazioen mantentze lanez arduratzen den kontrata gainbegiratzen du.

Kontrol horien guztien emaitzekin bat tratamendurako konsignetan beharrezkoak diren aldaketak egiten dira eta Produzio Arloari helarazten zaizkio.

- **Kontrol eta Horniduraren Kudeaketa programa baten bidez**, Vitoria-Gasteizko Udalaren Osasun eta Kontsumo Sailak (OKUS) onartutakoa, erakunde horiek AMVISari betebeharrak gisa eskatzen diotena lau hornidura eremuetako Kontrol eta Zaintza Unitatea delako: Vitoria-Gasteiz, Gorbeia, Urbarri Nagusia eta Mandoia. Azterketen emaitzak aldiro esportatzen dira EAeko Kontsumorako Uren Informazio Sistemara (EKUIS).

Programa osatzen da hala eskatzen duten bezeroen analitikak eginez, eta baita erreklamazioen ondorioz egiten diren analitikekin ere, edo Produzio eta Banaketa Arloekin lankidetzan egiten direnekin.

- **Barne kontrolen bidez kalitatearen kudeaketa sistemaren barruan**, Laborategian ezarrita eta ENACek kreditatua: barne ebaluazio kontrolak eginez, interlaborategietan parte hartuz eta auditoriak eginez.



AMVISako Laborategian proba analitikoak egiten



Futura Planaren hitzaldia
2015eko Etxe Berdeak Programa

Gizarte eta ingurumen erantzukizuna duena

Uraren Zerbitzu Osoaren prestazioak ingurumen iraunkortasun irizpideei jarraitu behar die eta zuzentzen den gizartearekin konpromisoa hartu behar du. Horretarako eta AMVISAK kezka horiei erantzuteko, ondorengo jarduerak garatzen ditugu, besteak beste: Ingurumen Hezkuntzako ekintzak, Garapenerako Lankidetzak, ur eskaeraren kudeaketa programak, uraren berrerabilpen eta euri uren tratamendurako programak, arazketako lokatzen balorizazio edo energiaren kontsumoaren optimizaziorako programak.

- **Garapenaren aldeko Lankidetzak** hornidura eta saneamendu proiektuetan laguntza teknikoa aurreikusten du, baita ekonomikoki diruz hornitzea eta natur hondamendi edo giza krisialdiei erantzutea ere Larrialdietarako Arabako Funtsaren bidez. Horretarako, AMVISAK urteko aurrekontuaren %1 esleitzen du eta Gasteizko Udalaren Lankidetzaren Zerbitzuarekin lankidetzan egiten du lan.

Aldizka Udal Sozietateak lankidetzaren hitzarmenak sinatzen ditu gizarte intereseko tokiko erakundeekin, babes modura edo jarduerak egiteko.

- **Vitoria-Gasteizko Ur Eskaera Kudeatzeko Plan Integralaren** garapenak jarduera multzo bat hartzen du bere baitan, besteak beste, ur kontsumoen karakterizazioa eta aholkularitza, aholkularitza teknikoa eta diagnostikoak egitea, eta herritarrei begirako komunikazio, informazio eta sentiberatzea.

2004 eta 2008 bitartean Ura Aurrezteko Plan Integrala izenarekin eta 2009tik aurrera Futura Plana izenarekin izatera tekniko eta komunikatiboko hainbat jardura burutu izan dira, ur kontsumoa egiten duten sektore guztiei zuzenduta. Horiei esker, Plan honetan jasotako helburu nagusiak bete ahal izan dira. Horrek guztiak lagundu egin du uraren kudeaketan Vitoria-Gasteiz erreferentziatzeko hiri izaten jarrai dezan, ur gordinaren eta araztuaren kontsumoak murriz ditzan eta ingurumen arloko estrategia sendotu dezan, Uraren Zerbitzu Integrala hobea eskaintzea bermatu dugun bitartean. Une honetan hirugarren fasea egiten ari da, 2014tik 2017ra bitartekoa.

- **Urari buruzko Ingurumen Hezkuntzako Jarduera Programak**, Vitoria-Gasteizko Udaleko Ingurumen lkerketa Zentroarekin koordinatuta, urtero egiten diren ikastetxei hiru eduki bloketan banatutako eskaintza:

- *Ibilbideak Zadorra ibaian zehar eta bere inguruan*, ikasturte osoan zehar. Bertan uztartzen dira bisita gidatua eta tailerrak.
- *AMVISAKo instalazioen*, tratamendu planten eta banketa sarearen bisita, martxotik ekainera bitartean. Bisitaren barruan jardura didaktikoak, tailerrak eta lan saioak ere egiten dira.
- *"Jolastuz ura ezagutu"* programa, uritik ekainera bitartean Atarian, Salburuako Hezeguneen Interpretazio Zentroan.

2015ean nabarmendutakoak

- **Banaketa sarean sartutako edateko uraren 19,358 milioi m³ kudeatu dugu.** 2014an eta 2013an baino %5,1 gehiago sartu da. 2012. urtea erreferentzia gisa hartuz gero, eguraldiaren ikuspegitik antzekoagoa izan zena, 2015ean erabilitako bolumena %2,0 txikiagoa izan da.
- **Hornidura orokorra hazi da,** biztanleko eta eguneko 216 litroraino iritsi arte.
- **Negoio zifraren zenbateko garbiaren hazi da,** %1,83n, guztira 23.452.944,73 €. Tarifak %0,25 igo dira aurreko ekitaldiarekiko.
- **Aberasturiko Administrazio Batzarrari hornidura berria egin zaio:** 6.100 m-ko luzerakoa eta 942.700,00 €-ko inbertsioa eskatu duena 2015. ekitaldian, Obra eta Zerbitzuetako Foru Planak finantzatua.
- **Edateko uraren banaketa sarearen 15,5 km berritu dira.** Horiez gain 6,1 km-ko sarea handitu dugunez, guztira 22,4 km-ko obrak izan ditugu hornidura sarean.
- **Vitoria-Gasteizko hustubide orokorraren gainezkabidean klapetak eta baheak jarri dira,** 782.890,00 €-ko inbertsioarekin.
- **Mendozako Administrazio Batzarrako saneamendu eta arazketa berritu dira** (obraren amaiera) eta **Arkaiko Administrazio Batzarraren saneamendua** ere berritu da. 2015eko ekitaldian 347.206,00 €-ko eta 323.300,00 €-ko inbertsioak, hurrenez hurren.
- **Aberasturi-El Salvadorreko Hilerria saneamendu orokorraren kolektorea gauzatu da.** 428.453,00 € bideratuta.
- **Krispiñako UZAren Ustiapen eta Mantentze kontratu berria esleitu da.**
- Ur zikinen arazketan sortutako **lokatzen %100eko balorizatu dira.**
- **AMVISako Ur Eskaera Kudeatzeko Plan Integralaren,** gaur egun Futura Plana, **garapenaren hamargarren urtea ospatu dugu.**
- **Azpiegitura teknikoa handitu dugu,** enpresak kudeatzen duen informazio bolumena jasan ahal izateko eta plataforma teknologikoaren elementu nagusiak eguneratuta mantendu ahal izateko (informazioa biltegiratzeko sistema zentrala handitzea eta segurtasun kopiak egiteko ekipook eskuratzea).



Krispiñako UZAren ikuspena






Jardueraren datuak




2015

Jardueraren datuak





Zerbitzua hartzen duen biztanleria



4 udalherri
89 herri



* 2016ko urtarilaren 1eko datuak




Langileak eta lan jarduerak



Langileak

74 finkoak

18 aldi baterako kontratuarekin



*Horietatik bi erabat erretiratu dira 2015ean zehar

Zerbitzua jasotzen duen biztanleria langile bakoitzeko

3.379 biztanle

Langile enplegatuak*

65


27

Jarduera arloaren arabera			Adin ertaina
Giza Baliabideak eta Idazkaritza	0	4	46
Ekoiuzpen eta Mantentze Arloa	39	1	50
Ustiapena eta Banaketa	12	4	47
Tratamendua eta Kalitatea	2	8	48
Administrazioa eta Ekonomia	6	7	50
Saneamendua	4	1	47
Gerentzia	2	2	52
Kategoriaren arabera			
Goi mailako tituludunak	7	4	
Erdi mailako tituludunak	4	3	
Administrariak	6	12	
Teknikariak	16	7	
Operadoreak eta espezialistak	23	0	
Ofizialak edo peoiak	9	1	
Zuzendaritza postuetan	6	2	

*INEMek AMVISAREN alde hiru urteko epealdirako salbuespeneko Erabakia (EXC-01/008/13) onartu du. Beraren bidez, ezgaitasunen bat duten langileei lanpostuen %2 gordetzeko betebeharraren ordeztelako neurri batzuk ezartzea baimendu du.

Lan jardueraren datuak

Absentismo indizea
%8,19




Lanaldi teorikoa (orduak)	1.647
Benetako lanaldia (orduak)	1.607
1.607ko lanaldia duten pertsonen batez bestekoa	70
Aldi baterako langileek (lan poltsa) lan egindako egunak	%3,32
Behin-behineko kontratuak	152
Metatutako aparteko orduak	83
Arduraldi bereziko orduak	184
Urteko ordu kopurua Enpresa Batzordean	267
Lan egin gabeko ordu kopurua guztira	9.393



Giza taldearen prestakuntza eta kudeaketa

Prestakuntzaren urteko ordu kopurua	2.658
Prestakuntza orduak ordu kopuru teorikoekiko	%2,36
Prestakuntzako gastua guztira (€)	25.856,72
Bidaietan egindako gastu berezia (€)	9.417,92
Tripartitaren hobariak (€)	8.870,60
Hobetuzen hobariak (2014-2015 ikasturtea) (€)	7.266,43

Langile bakoitzeko prestakuntza orduen bilakaera




Giza taldearen kudeaketa: jarduera nabarmenak

- Urtarilean egin ziren hauteskunde sindikalak eta otsailaren 2an osatu zen Enpresa Batzordea, ordezkaritzaren %60 ELAk izanik eta %40 CCOOK.
- Hitzarmen Kolektiboaren negoziazio prozesuaren jarraipena.
- Hiru ikasle hartu ditugu praktketan eta beren prestakuntza SAP eta programazioari buruzkoa izan da (bi kasutan) eta Kalitateari eta Elikadura Segurtasunari buruzkoa.
- Segurtasun eta Osasun Batzordearen ohiko lau bilera egin dira urtearen barruan. Urtarilaz geroztik Batzordeak bi kide berri ditu. Prebentzioko ordezkariek dira eta Enpresa Batzordeak bere kideen artean aukeratu ditu. 2.348,32 € ordaindu dira lan material eta osasunean.
- Lan istripu arin bakar bat kontabilizatu da bizkarreko minarengatik eta 6 eguneko baja medikoa izan zuen.
- Nahi duten langile guztiek osasun azterketa izaten dute urtean behin (Hitzarmen Kolektiboaren 58.9 artikulua araberak).






Jaso eta banatutako bolumenak (m³)



Urteko bilakaera (m³)



30 urtean banaketa sarera bidalitako ur bolumena **%37** gutxitu da

Uribarriko Urtegiko datuak


Bildutako batez besteko bolumena (Hm ³)	112,53
Batez besteko kota 2015ean	544,15
Egunean jasotako ura batez beste (m ³)	46.853
Hilean geh. jasotakoa (m ³)	2.079.004 (uztaila)
Dulantzi ibaiaren Kanalak urtegiari egiten dion ekarpena (m ³)	27.043.668

Zadorra Sistemak, Uribarri eta Urrunaga urtegiak osatua, AMVI-SAK jasotako uraren **%82,3** hornitzen du

Zadorra Sistemaren 2015ean bildutako batez besteko bolumena **136,98 Hm³-koa** izan zen



Uribarriko Urtegiak jasotako bolumenak eta bere berme kurba





Arakako EUA

Ekoiztutako ura (m³)

18.358.278

Biltegiatze
gaitasuna (m³)

105.000 uztaileta arte

63.000 uztailetik aurrera

Erreaktiboaren kontsumoa (kg)	543.357
Kloro gasa	55.136
Sodio Hidroxidoa	8.705
PAX-XL7A flokulantea	25.073
DKBASIC 03 flokulantea	343.678
Azido Hexafluorosilizikoa	78.047
Ikatz aktiboa	25.986
Hipokloritoa*	6.732
Garbiketaren kopurua	328
Energiaren kontsumoa (Kwh)	845.419

*Gorbeiko EUAn



Arakako EUAko gordailuak goitik ikusita

Araka eta Gorbeiko EUAk: jarduera nabarmenak

- Gorbeiko Iragazketa Eraikinean (EUA) zolarri berri bat egiteko proiektuaren prestakuntza.
- Arakako EUAren edateko uraren 2. zenbakiko gordailua aldatzeko proiektuaren erredakzioa. 34 urte eta 30.000 m³-ko edukiera dauzka.

Ur biltegia berritzeko lanak egiteko 2016an EUAn dagoen ezaugarri berdineko beste biltegia sendotuko da, ordezkatzen den bitartean bere funtzionamendua bermatu ahal izateko. Eraitsitako biltegiaren egituraren egoera aztertuko da, beste biltegia ere botatzea komeni den edo, aldiz, beste era bateko esku hartzeren bat egin daitekeen erabakitzeko. Lizitazioaren aurrekontu osoa 3.500.000,00 €-koa da, BEZ kanpo, eta 2016 amaierarako edo 2017 hasierarako amaituta egotea aurreikusten da.

2016. urtean zehar ere Gorbeiko Iragazketa Eraikinean (EUA) zolarri berriaren obra egingo da.

2016an edateko uraren hornikuntzarekin zerikusia izango duen jarduerarik nagusia **Arakako EUAn** egingo diren eraispin lanak eta **ur biltegi berri bat** egitea izango dira




Edateko uraren kalitate kontrola

Urtean zehar egindako kalitate kontrolen balantze orokorra

Barne kontrolak	2.351 lagin	23.341 parametro
Kanpoko laborategietan egindako kontrolak	76 lagin	2.084 parametro
Ezarritako kalitate sistemarako kontrolak	1.383 lagin	5.118 parametro
Kanpoko bezeroei egindako kalitate analitikak (2)	34 lagin	305 parametro
Erreklamazioengatiko kontrolak edo beste Arlo batzuekin elkarlanean egindakoak	8 lagin	48 parametro

Igorritako ur gordinaren kalitatea (m³)



Uraren kalitatearen Kontrola eta Zaintzaren eginkizuna ondorengo herritan egiten da

altuan **38tan**
altuan eta baxuan **53tan**

Arakako EUAn egindako kontrolen datu zehatzak

Eguneroko kontrola (laginak guztira)	702
Mikroalgen analitikak	42
Protozoo patogenoen analitikak*	24
Burdinaren eta manganesoaren analitikak	199
Zebra muskuiluaren larbak aurkitzeko kontrolak*	14
Urtegiaren mailako profilak zunda multiparametrikorekin	7 Uribarrin 7 Albinan

*Kanpoko laborategiei azpikontratatuta



Arakako EUA

Hornikuntzaren kontrol eta kudeaketa programa: aztertutako laginak*

Vitoria-Gasteizko Hornikuntza Eremua

Kontrola bilketetan (Uribarriko eta Albinako urtegiak eta Zadorra ibaia Duran)	16
Kontrola biltegien irteeran (Arakako eta Gardelegiko EUA)	287
Kontrolak sarearen laginketa puntuetan (32 puntu hirian eta 36 puntu Administrazio Batzarretan)	951
Biltegien irteeran eta hiriko lau puntutan dastamen eta usaimeneko ezaugarrien azterketa (35 dastatze panel)	94
Erradioaktibitatearen kontrol bereziak	3



Kalitate egokia

15.003 parametro aztertuta
%99,27ko egokitasuna

Gorbeiaiko Hornikuntza Eremua

Kontrola bilketan	7
Kontrola iragazketa Eraikinaren irteeran	50
Kontrola sarerako irteeran (Murua)	68
Kontrolak sarearen laginketa puntuetan (4)	28



Kalitate eskasa

2.413 parametro aztertuta
%87,00ko egokitasuna

Mandoiako Hornikuntza Eremua

Kontrola bilketan	2
Kontrola biltegiaren irteeran	0
Kontrolak sarearen laginketa puntuetan	22



Kalitate egokia

270 parametro aztertuta
%100,00ko egokitasuna

Uribarri Nagusiko Hornikuntza Eremua

Kontrola bilketan	1
Kontrola biltegiaren irteeran	0
Kontrolak sarearen laginketa puntuetan	14



Kalitate onargarria

204 parametro aztertuta
%90,00ko egokitasuna

*Lagin egokien portzentajea sarean programatuta dauden laginen guztizkoaren gainean kalkulatzen da, bilketetako laginak eta ez-betetzeen egiaztatzeengatik eta gorabeheren jarraipenarengatik egindako programatu gabeko laginak kontuan hartu gabe.

Edateko uraren kalitatea: jarduera nabarmenak

- Ondoko proiektuaren luzapena gauzatzea, Madrilgo Complutense Unibertsitatearekin batera: "Hurrengo lanetarako aholkularitza: gizakien kontsumorako urtegietan zianobakterioek sortutako toxinak detektatzeko metodoak ezartzea; metalak (manganesoa eta aluminioa), herbizidak eta mikrozinak aurkitzeko biosentsorea garatzea; eta berez berroneratuko den mikrozinako bioiragazkia instalatzea, kontrolatzea eta ebaluatzea (I. Fasea)".
- Ekipamenduetan inbertitu da batzuk matxuratu direlako eta batzuk berrizatu behar izan direlako: eremu uhertasunaren neurketarako ekipoa, plaka beroemailea, lehertzeko labea eta desplazamenduetarako eta laginak hartzeko ibilgailua.
- Ataleko langileen prestakuntza kalitate kontroleko grafikoetan.
- ENAC-k AMVISaren laborategiaren egiaztapenaren jarraipen ikuskaritza egin du ekainean eta emaitza onak izan dira. Azaroan barne ikuskaritza bat egin da.

2016. urterako lehen aipatutako proiektua amaitzeko asmoa dago, Madrilgo Complutense Unibertsitatearekin batera garatua.

Era berean, gasen-masen ekipoa bat eskuratzea aurreikusten da, laborategian azterketak egin ahal izateko eta horrela azpikontratatu behar ez izateko.

Bestalde, Arakako EUako laborategian hondakinen kudeaketarako prozedura abian jartzeari ekingo zaio.

2015ean zehar AMVISak hiru intzidentzia besterik ez du aurkitu EAEko hornikuntzen Kontrol eta Zaintza programen barnean: bi Gorbeiko Hornikuntza Eremuan eta bat Uribari Nagusiko Hornikuntza Eremuan



Edateko uraren kalitatearen parametroak, hornikuntza eremuaren arabera

Parametro kimikoak

Parametroa	Gehieneko kontzentrazioa*	A.VITORIA-GASTEIZ		A.GORBEIA		A.MANDOIA		A.URIBARRI NAGUSIA	
		Batez- bestekoa	Azterketa kop.	Batez- bestekoa	Azterketa kop.	Batez- bestekoa	Azterketa kop.	Batez- bestekoa	Azterketa kop.
Aluminioa ug/l	200	90,8	219	100	97	<20	1	<20	1
Amonioa mg/l	0,5	<0,1	1.220	<0,1	142	<0,1	21	<0,1	14
Antimonioa ug/l	5	<1	33	<1	12	<1	1	<1	1
Artsenikoa ug/l	10	<1	33	<1	12	<1	1	<1	1
Barioa ug/l		10,2	33	9,6	12	26,2	1	8	1
Boroa mg/l	1	<0,1	33	<0,1	12	<0,1	1	<0,1	1
Bromodiklorometanoa ug/l		8	26	1,9	1				
Bromoformoa ug/l	5	<1	26	<1	1				
Kadmioa ug/l	5	<1	33	<1	12	<1	1	<1	1
Kaltzioa mg/l		49	33	41,1	12	83,4	1	84	1
KOG mg/l	Ezohiko aldaketarik gabe	2,5	101	1,16	94	1,8	1	2,1	1
Zianuroak ug/l	50	<10	26	<10	9				
Kloro askea mg/l	1	0,3	1.235	0,64	145	0,42	22	0,38	14
Kloro osoa mg/l	2	0,4	1.235	0,68	140	0,49	22	0,44	14
Klorodibromometanoa ug/l		1,6	26	<1	1				
Kloroformoa ug/l		45	26	5	1				
Kloruroa mg/l	250	14,7	33	5,5	12	11,3	1	11,4	1
Kobrea mg/l	2	<0,01	33	<0,01	12	0,01	1	<0,01	1
Kolorea	15	<5	1.235	<5	144	<5	21	<5	14
Eroankortasuna uS/cm	2.500	257	1.236	196	144	574	21	510	14
Kromoa ug/l	50	<5	33	<5	12	<5	1	<5	1
Fluoruroa mg/l	1,5	0,9	1.230	<0,1	40	0,3	2	0,17	5
Fosforo (P ₂ O ₅) ug/l		<230	33	<230	12	<230	1	<230	1
Burdina ug/l	200	<10	125	57,5	54	<10	1	11,9	1
Magnesioa mg/l		3,2	33	<1	12	21,9	1	20,5	1
Manganesoa ug/l	50	<5	123	<5	54	<5	1	<5	1
Merkurioa ug/l	1	<0,1	31	<0,1	11	<0,1	1	<0,1	1
Mikrozistina ug/l	1	<0,3	33	<0,3	12	<0,3	1	<0,3	1
Nikela ug/l	20	<5	33	<5	12	<5	1	<5	1
Nitratoak mg/l	50	3,7	33	1,56	12	<1	1	1,5	1
Nitritoak mg/l	0,1 irteera/0,5 sarea	<0,02	33	<0,02	12	<0,02	1	<0,02	1
Oxidagarritasuna mg/l	5	1,7	28	1	10	1	1	1,45	1
pH-a	6,5-9,5	7,7	1.219	7,85	141	7,5	21	7,36	14
Pestizidak, guztira ug/l	0,5	<0,5	26	<0,5	2				
Beruna ug/l	25	<10	33	<10	12	<10	1	<10	1
Potasioa mg/l		1,3	33	<1	12	1	1	2	1

Parametroa	Gehieneko kontzentrazioa*	A.VITORIA-GASTEIZ		A.GORBEIA		A.MANDOIA		A.URIBARRI NAGUSIA	
		Batez- bestekoa	Azterketa kop.	Batez- bestekoa	Azterketa kop.	Batez- bestekoa	Azterketa kop.	Batez- bestekoa	Azterketa kop.
Selenioa ug/l	10	<1	33	<1	12	<1	1	<1	1
Sodioa mg/l	200	6,5	33	3,4	12	24	1	6,6	1
Sulfatoa mg/l	250	15	33	7,1	12	16,9	1	15,2	1
Tetrakloretenoa ug/l	Tri+tetraklor<10	<1	26	<1	1				
THMak, guztira ug/l	100	24	26	7	1				
Trikloetenoa ug/l	Tri+tetraklor<10	<1	26	<1	1				
Uhertasuna NTU	1 irteera; 5 sareak	0,5	1.237	1,5	146	0,3	22	1	14
Zinka ug/l		<10	33	<10	12	20,1	1	<10	1

*140/03 EDren arabera

Parametro mikrobiologikoak

Parametroa	Gehieneko kontzentrazioa*	A.VITORIA-GASTEIZ		A.GORBEIA		A.MANDOIA		A.URIBARRI NAGUSIA	
		Batez- bestekoa	Azterketa kop.	Batez- bestekoa	Azterketa kop.	Batez- bestekoa	Azterketa kop.	Batez- bestekoa	Azterketa kop.
36°C Aerobioen zenbaketa ufc/ml		3	212	6	99	0	1	2	1
22°C Aerobioen zenbaketa ufc/ml	EUA irteera<100 Ezohiko aldaketarik gabeko sareak	5	33	3	12	0	1	4	1
Clostridium perfringens zenbaketa ufc/100ml	0	0	211	0	115	0	1	0	1
Koliformeen zenbaketa, guztira ZP/100ml	0	0	1.224	0	144	0	21	0	14
E-coli zenbaketa ZP/100ml	0	0	1.228	0	144	0	21	0	14
Enterokokoen zenbaketa ZP/100ml	0	0	36	0	12	0	1	0	1
Pseudomonas aeruginosaren zenbaketa ufc/100ml		0	33	0	12	0	1	0	1

*140/03 EDren arabera

Vitoria-Gasteizko kontsumorako uraren batez besteko gogortasuna **13,3 eta 17 HF** artekoa da. Herri-tarrek uraren kudeaketaz duten iritzia buruz egindako azken ikerketan, 2015ean egin, uraren kolorea, usaina eta zaporea "oso ona edo nahiko ona" bezala baloratzen zuten inkestatutako pertsonen %94,3k, %92,4k eta %92,1ek hurrenez hurren




Laborategiaren ikuspena



Edateko uraren banaketa

Sarearen luzera (km)

732,5



Kontagailu kopurua

131.392

Hartuneak	10.153
Ponpatze estazioak	14
Aurrebilagailuak	724
Ureztatze ahoak	1.962
Suteetako ur hartuneak	998
Balbulak	3.919
Hustubideak	1.985
Urrutiko kudeaketaren bidez kontagailuak	3.600

Jardueraren datuak

Berritutako sarea (m)

15.573

Berritutako kontagailuak

8.042

Sarearen hedapena (m)	6.551
Kontagailu berriak	1.330
Korrelazio akustikoa (sare km)	444
Sarean aurkitutako ihesak	11
Aurkitutako ihes partikularrak	2
Berrikusitako instalakuntzak	197


Banaketa adierazleak*

Errendimendua

%88,1

Zuzkidura orokorra
(litro/bizt./egun)

216



Erregistratu gabeko ura	%16,7
Ur galerak	%11,9
Hodiak berritzea	%11,0
Hartuneak berritzea	%3,0
Baliabidearen agortze tasa	%37,9
Ihesen kontrol aktiboa	%60,6
Ihesen atalase minimoa (litroak/hartuneko/eguneko)	152,3
Egiturazko ihesen indizea	1,85
Abonatuak hartune bakoitzeko	12,24
Hartuneen arteko batez besteko distantzia (m)	72,15

* Adierazle bakoitzaren azalpen zehatza eta bere kalkulua ezagutzeko ikusi terminoen Glosarioa

Edateko uraren banaketa: jarduera nabarmenak

- Guztira 1.282 lan agindu burutu dira: horietatik 672 banaketa sistemaren mantentze lanak izan dira, 170 matxuren konponketak eta 440 Arloaren berezko zerbitzuak.
- 51 larrialdiri eman zaio erantzuna.
- Ondoko hornikuntza sareak berritu dira: Ceferino Urien kalea (2014an hasitako lanak), Espoz y Mina kalea, Gamarra kalea (III. fasea), Ehari auzoa (I. fasea, 7.950 m, eta II. fasea, 4.800 m) eta San Martin auzoa (10.300 m guztira, lanen hasiera).
- Arkaiako Administrazio Batzarraren hornikuntza sarearen berrikuntza eta Aberasturiko hornikuntza sistemara gehitzea.
- Jundizen klorazio gune berri bat abian jartzea.
- AMVISaren hornikuntzaren GISean mugikortasun tresna berri bat ezartzea.

2016. urterako ondoko jarduerak aurreikusten dira:


- Lakua-Arriaga auzoko hornikuntza sarearen berrikuntza lanak egitea eta San Martin auzoan hasitako lanak amaitzea.
- Gorbeiako urtegien gainezkabideak eta horma nagusia hobetzeko lanak egitea eta Ustiapen Arauetara egokitzea.
- Albinako Urtegiaren Ustiapen Arauak berrikustea.
- Otazu eta Argandoñako Administrazio Batzarren hornikuntza sareak berritzea eta AMVISaren saretik Uribarri Nagusiko, Gamizko eta Bolibarko Batzarretarainoko hornikuntza proiektuaren erredakzioa.
- Iruña-Okako Udalerritik Vitoria-Gasteizeraingoko hornikuntza zerbitzuari dagozkion Plan Berezia eta Arau Subsidiarioak amaitzea.

2015. urtean zehar **AEASeko** – Espainiako Ur eta Saneamendu Hornikuntzen Elkarte- **Kontagailuei buruzko Lantaldearen** koordinazio ardura izan du AMVISAK






Tratatutako ur zikinen bolumenak (m³)



Urteko eta hileko bilakaera (m³)





Saneamendu sistema

Ponpaketa estazioak (ur zikinak)	12
Ponpaketa estazioak (euri urak)	7
Ikuskapenerako erregistro putzuak	26.820
Putzu septiko publikoak	51
Lohi aktiboen UZAk	12
Lur azalpeko fluxuko hezegunearen moduko UZAk	2

Sarearen luzera eta hodi biltzaileak (km)
843,0

Saneamendua: jarduera nabarmenak

- Saneamenduaren berrikuntza lanak egitea kale eta Administrazio Batzarretan:
 - Sareak honako lekuetan: Gamarra kalean (III. fasea), Mateo Moraza kalean, Santa Maria Plazan eta Santiago-Kontzeju-Larragana kaleetan, azken kasu horretan mahuka autosostengagarriko lubakirik gabeko teknologia erabiliz (horiek guztiak amaiturik), eta Vitoria-Gasteizko Kuadrillako kalean (egiten ari da).
 - Sare berezia, ponpaketa, aurretratamendua eta UZA Mendozan (amaituta).
 - Sare bereziak Mataukun (amaituta) eta Arkaiian (egiten ari da).
 - Aberasturi-UZA El Salvador hilerriaren arteko hodi biltzaile nagusia (egiten ari da).
- Vitoria-Gasteizko isurbide nagusiaren gainezkabideak beritzea, lhurreko gainezkabidean atzerazeko klapetak eta baheak jartzea barne (Feder Fondoek zati batean finantzatuta 2007-2013 epealdian).
- Gorabidean dauden Kutsatzaileei buruzko koordinazio mahaian parte hartzea, Euskadiko ur partzuergoek, URAk eta ACLIMAK osatuta. Lehen helburua paper-zapi busti higienikoak komunetik behera botatzeari buruzko informazio kanpaina bat diseinatzea izan da.

2016. urterako amaitzeke dauden lanak amaitzea aurreikusten da, bai eta lan berriak abiatzea ere, Lasarteko Atean, Mendizorroztan eta Gamarra Nagusiko eta Otazuko Batzarretan. Era berean, Krispiñako gainezkabidean baheak jarriko dira.



Hustubidea Krispiñako UZA n sartuta
Etxe Berdeak Programaren bisita

Urtean zehar **hiriko biltzaileetan 2.216 m**-ko berrikuntza lanak egin dira **eta Administrazio Batzarretako sareetan 14.773 m**-koak (ur zikin 8.094 m eta euri uren sare bereziaren 6.679 m)




Krispiñako UZA

Arazteko gehieneko gaitasuna (m³ urtean)

43.800.000

Sortutako hondakinen osaketa



Erreaktiboen kontsumoa (kg)	1.154.660
Polielektrolitoa	28.500
PAX Flokulantea	502.940
Burdin kloruroa	623.220
Edateko uraren kontsumoa (m ³)	2.542
Energia kontsumoa (Kwh)	9.260.188
Biogasaren sorrera (Nm ³ /egun)	3.962
Energiaren sorrera (Kwh)	4.096.370
Hondakinak sortzea (Tn)	13.997
Lohien lehortasuna (%)	26,97



Otsailean **UZAre**n eta arazketa instalazio periferiko batzuen **Ustiapen eta Mantentze Zerbitzurako Hitzarmena** esleitu zen hurrengo lau urteetarako

Krispiñako UZA




Tratatutako ur zikinaren kalitate kontrola

Urtean egindako kalitate kontrolen balantze orokorra

Ur marran	13.730 analitika	7 lagin	43 parametro
Lohi marran	13.987 analitika	26 lagin	49 parametro
Gas marran	475 analitika	1 lagin	7 parametro
Soinuen mapa	2 analitika	31 lagin	1 parametro
Zisternen isurien analisisa	2.505 analitika	835 lagin	3 parametro
Isuri atipikoen analisisa	462 analitika	22 lagin	21 parametro

Krispiñako UZAn sartzen den influentearen karga kutsatzailea, guztira (Tn)



Efluentearen kalitatea* eta arazketaren errendimendua

	Aurreko balioa	Ondorengo balioa	Baimendutako muga	
SE-Solido esekiak (mg/l)	223,7	» %95,9 »	9,2	20
OEB ₅ (mg O ₂ /l)	237,0	» %98,3 »	4,0	15
OEK (mg O ₂ /l)	475,7	» %93,5 »	30,8	60
N-Amonioa (mg N-NH ₄ ⁺ /l)	30,2	» %95,7 »	1,3	2
N-Nitratoak (mg N-NH ₃ /l)	--	» -- »	10,1	10
NG (mg/l)	42,3	» %68,1 »	13,5	15
PG (mg/l)	4,8	» %85,4 »	0,7	1

* Urteko batez besteko balioak

Amoniorako, uhertasunerako, fosfororako, solido esekietarako, OEK-rako eta nitratoetarako tratatutako efluentearen etengabeko analizagailuek oro har funtzionamendu egokia izan dute ordukako analitikak eginda, 30 edo 3 minutuan behin. Oxigeno eskari biokimiko (OEB) 5erako analizagailuak ez du datu fidagaririk eman.

AMVISAk urtean zehar UZAko sarrerako eta irteerako uretan zein lokatz deshidratatuetan **67 metal lagin** aztertu zituen, erabili aurretik kontrolatzeko.



Laborategian egindako lohiaren analisiaren laginak

Isurietako ezaugarrien eta lokatzetan dauden metalen zehaztapenak

Lokatz deshidratatuetan dauden metalak (mg/kg mat. lehor)

Metala	2015	2014	Urte arteko aldaketa tasa	Mugako balioak*	
				pH<7 duten lurzorua	pH>7 duten lurzorua
Aluminioa	21.502	18.025	16%	--	--
Kadmioa	2	3	-45%	20	40
Kromoa	199	124	38%	1.000	1.500
Kobrea	344	389	-13%	1.000	1.750
Burdina	34.015	41.510	-22%	--	--
Manganesoa	247	304	-23%	--	--
Nikela	87	78	10%	300	400
Beruna	56	60	-7%	750	1.200
Zinka	2.304	2.143	7%	2.500	4.000
Merkurioa	0,9	0,9	0%	16	25

* 1310/90 EDren arabera

Putzu septikoetatik datozen isuriak

Jatorria	Zisternen kop.	Bolumena (m ³)	SE (kg)	OEK (O ₂ kg)	N guztira (kg)
Enpresak	300	2.744	20.973	42.928	2.071
Udalak., Admin Batzarak, Koadrilak	455	4.087	74.147	54.628	1.379
Komunitateak eta etxe partikularak	68	649	18.682	23.155	497
Beste batzuk	12	90	480	464	16

Tratatutako ur zikinaren kalitatea: nabarmendutako ekintzak

- UZAko laborategirako ekipamendu berria eta ur tratatuaren kontrola egiteko parametro anitzeko etengabeko BIOTECTOR analizagailua eskuratzea, N-NH₄, nitrogenoa guztira eta materia organikoa analizatzeko.
- Ur, lohi eta lokatz aktiboen mikroskopia laborategien arteko harremanetan parte hartu.
- I+G eta T "UZAko lokatzetarako bestelako irtenbideak" garatzeko proiektua egin. Bio-ongari pikorrek formulatu. Neikerrek diseinatutako paisaietarako tekno-zoruak.

2016an, UZAko Kontrol Automatikorako Gunea abian jartzen dugunean, Nitrogenoa guztira eta Karbono Organiko Guztirakoaren etengabeko analizagailua jarrita egongo da.

Horrez gain, oraingo EUA Hirugarren Tratamendua egiteko eraikin berriko gela batera lekuz aldatzea aurreikusten da.



Fakturaziorako datu orokorrak


Hornikuntza kontratuak ¹	124.259
Urteko altak	4.391
Urteko bajak	3.572
Elementuak ¹	131.839
Ur-hornidura	131.839
Estolderia	131.488
Arazketa	131.425
Fakturaturako kontsumoa (m ³)	45.898.864
Ur-hornidura ²	16.285.025
Estolderia	15.087.479
Arazketa	14.518.790
Isurketa industrialetan	7.570
Fakturazioa (€)	24.030.127,09
Ur-hornidura	11.284.535,32
Estolderia	3.944.385,93
Arazketa	7.953.585,66
Isurketa industrialetan	270.437,82
Beste kontzeptu batzuetan	577.182,36

¹2016ko urtarileko fakturazioaren arabera, kontsumo hobariduna duten Udaleko eta Zentro ofizialeko 17 kontratu barne hartuta.


